

Abaltzisketako Udala partaide den Elkarte eta Erakundeak

ABALTZISKETAKO Udala honako erakundeen partaidea da:

- **ENIRIO ARALAR MANKOMUNITATEA**

MANCOMUNIDAD DE ENIRIO-ARALAR / ENIRIO-ARALARKO MANKOMUNITATEA du izena

UNIONES DE AMÉZQUETA Y VILAFRANCA DE ORIA (Aurreko izena)

1412an sortua eta Gipuzkoako Enirio-Aralarreko mendien kudeaketa du helburu.

Ordiziako Udaletxean du egoitza eta 15 herri dira partaide. Abaltzisketa, Alzaga, Amezketza, Arama, Ataun, Baliarrain, Beasain, Gaintza, Ikaztegieta, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Ordizia, Orendain, Zaldibia.

- **TOLOSAKO HILTEGI AMANKOMUNATUA**

- Zerbitzuak:

- Hiltegi-zerbitzuen prestazioa eta horretarako behar diren eraikuntzen eta instalazioen eraikintza.

- **TOLOMENDI- Mendi Nekazaritza** .

Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkarte da. 28 herriz osatua, hauetatik gehienak herri txiki eta landa herriak direlarik, Tolosa izanik eskualde-buru. Oria ibaiak bitan banatzen du eta Aralar, Ernio eta Leizanarek osatzen dute eskualdearen muga naturalak.

- **TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA** . 1998. urte amaieran eratutako erakunde publikoa da. 28 udalerrik osatzen dute, guztira 58.101 herritar bilduz. Tolosaldeko Mankomunitatearen helburu nagusiak ondokoak dira:

Osatzen duten udalerrietan sorturiko hiri hondakinen kudeatzea

Hiri hondakinen gutxitze, berrerabilpen eta birziklapenera bideratuta dauden ekimenak bultzatzea

Gizarteari zuzenduriko sentsibilizazio eta komunikazio kanpainak antolatzea

- **TOLOSALDEA GARATZEN SA**

Tolosaldea Garatzenek bere baliabideak eskualdeko eragile ekonomikoen helarazi nahi dizkie, beraien garapen osoa erdiesteko. Horretarako lehiakortasuna hobetzeko neurriak sustatzen ditu, hazkunderako oinarriak sendotuz, eta ondorioz, lan postu berriak sortzeko gaitasuna handituz.

- **GIPUZKOAKO URAK SA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren aginpideko udalerriek sustatuta, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa 1992an sortu zen, ondo zehaztutako bi zeregin hauekin:

Gipuzkoako 68 udalerritan uraren hornidura eta kalitatea ziurtatzea.
Lurraldearen %85 hartzen du, beraz, 310.000 herritar dira zerbitzu horren onuradun. Bestalde, herri horietako hondakin-urak bideratu eta saneatzea, ibaietara isuri aurretik.

Kalitatea izan da beti lehen helburua Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eguneroko zereginetan. Izan ere, Gipuzkoako Urak S.A. da UNE-EN-ISO-9002 egiaztagiria bereganatu duen lehen sozietatea uraren aginpide-esparruan

- **APATTAERREKA Industrigunea SL.**